



hiruka

Uribe Kostako astekaria



10. zenbakia
2015eko
martxoaren 26tik
apirilaren 1era arte





Getxo

Lurzoruen tira-birak

EAEANk Galeako

lursailak landa-lurzoru legez sailkatuta jarraitzea berretsi du.

Udalak Galeako lursailak desjabetzeko ordainduta-ko 263.000 euroak berretsen duen epaia plazaratu du Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (EAEAN). Hala, epaiak lursail horien lehengo ugazaben gura nagusia errefusatu du, hau da, Galeako gotorleku, itsaslabarreko goialde eta udal hilerriaren arteko lursaila urbanizagarri izendatzea. Hori landa-lurzoru legez sailkatuta dago, eta urbanizagarri bezala baloratuz gero, 12 milioi euroko kalte-ordain oso baterako bidea emango luke. Udalak 2011n desjabetu zituen lurzoru ho-



Udalak 263.000 euro ordaindu ditu Galeako lursail horientatik.

riek. Jabeak ez zeuden ados, eta Udalak Nahitaezko Desjabetzeko Lurralde Epaimahaira jo zuten. Horrek lursailen balorazioa bermatu eta prezioa 263.000 euroan finkatu zuen. Ugazabek erabaki horren aurka helegitea aurkeztu eta lursailei urbanizagarrien

balioa emateko eskatu zuten: 12 milioi euro. Orain, EAEANk epaia eta ordainketa berretsi ditu. Lursailen lehengo jabeek Auzitegi Gorenean kasazio-errekurtsoa aurkez dezakete oraindik. Hori egin ezean, epaiak behin betiko emango dio amaiera auzi horri. ◀

Gobela ibaiaren edukiera handitzeko lanak, Fadura aldean

Fadura inguruan Gobela ibaiaren hobekuntza hidraulikorako lanen eskaintzak aurkezteko epea apirilaren 9ra arte luzatuko dute, gero esleitzen ditzaten. URAk abiatuko ditu lanak urtearen akabuan, eta 12 hilabete inguru iraungo dute, eguraldiaren arabera. Lizitazioaren hasierako aurrekontua 4.477.398 eurokoa da (BEZ barne). Obra horiek udalerrian dagoen uriola-arriskua ahalik eta gehien txikitzea dute helburu. Lanok Uribe Kostata (Fadura kiroldegia ondoan) eta Salsidu zubien arteko tartean egingo dituzte. Bertan, ibilguaren ingurua hondeatuko eta hustuko dute, alboan plataforma bat sortzeko. Horrela, ibaiaren edukiera handitu gura dute, urek kontrolpeko gune batean gainezka egin dezaten. Horretarako, kiroldegiko pilotalekuen ondoko zubi eta pasabidea eraitsi eta, horien ordez, berriak egingo dituzte. ◀



Getxon sinesten dugu

Bat eginda gure hiriaren garapenaren alde.

Getxo

Ibarbengoa berriro ere eztabaiden jomugan

Aurten abiatuko dituzte Andra Mari auzoan dagoen Ibarbengoa metro-geltoki ondoko aparkalekua egiteko obrak. Hori dela eta, eztabaidak hasi dira berriro ere.



Tosu landan egin nahi dute Ibarbengoa aparkalekua.

Getxoko Andra Mari auzoan egin gura duten Ibarbengoa-ko aparkalekuak eztabaida sortu du berriro ere. Bizkai-ko Garraio Partzuergoak (BGP) hasiera eman nahi die aurten Ibarbengoa-ko metro-geltokiaren ondoko landan hiru solairuko aparkalekua egiteko lanei. Hori aurrera eramateko, 5,8 milioi euroko aurrekontua dute.

Gune hori ezaguna da Tosu landa izenagaz, eta hantxe dago proiektuaren kontrako erresistentzia-kanpaldia, irail ezkerotik. Bertan kanpatuta dauden gazteen arabera, Ibarbengoa-ko disuasio-aparkalekuaren kontra egoteko «lau arrazoi» daude. Euren arabera, proiektua «ekologiaren kontrako» da, «bertoko ortu-proiektu komunitarioa bertan behera geratuko litzatekeelako eta balio handiko lur azpiko akuiferoak suntsituko dituelako». Halaber, euren iritziz, «faraonikoa» da, «dirutza publikoa gastatuko dutelako eta betikoak baino ez direlako aberastuko proiektu horrekin». Era berean, «proiektu ilegala» dela salatu dute, «derrigorrezkoa den Ingurumen Eragin Txostena egin ez dutelako»; eta, gainera, deitoratu dute hori gauzatzeko parte-hartzerik ez dela egon.

304 plazako aparkaleku estalia BGP, bere aldetik, aparkalekuaren aldeko «304 arrazoi garraio publikora

igotzeko» izeneko txostentxoak banatzen hasi da, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Horren arabera, aparkalekuak 304 leku estali izango ditu, horietako zazpi mugikortasun urria duten pertsonentzat. Hori egiteko obrak aurten hasiko dira, eta adierazi dutenez, azpiegitura horrek «gainerako udalerrietako hirigunee-tara heltzeko modu azkarra, seguru eta merkea eskainiko du, garraio publikoaren erabilera sustatuz». Azaldu dutenez, aparkalekuak «diseinu integratzailea» izango du, «geltokian eta Andra Marin integratuta geratuko da, soslai baxuko diseinuarekin». Hiru solairukoak izango da eta horietako bi lur azpian egongo dira. Hori erabiltzeko, 70 zentimo ordaindu beharko dira, egun osoan autoa bertan utzi ahal izateko. Ibarbengoa-ko metro-linearen laugarren aparkalekua izango litzateke, Leioakoaren, Etxebarrikoaren eta BECeakoaren ondoren; BGPk emandako datuen arabera, gaur egun daudenak, 2014an errepideetatik «300.000 ibilgailu kentzea lortu zen». Aparkalekuak trenbidearen trazatuagaz paraleloan joango den eta Ormazako estartagaz lotura izango duen errepidetik izango du sarbidea.

Ibarbengoa-ko metro-geltokiak ia bost urte daroatza itxita, eta aipatutako aparkalekua eraiki arte ez dute hori zabalduko. ◀

Mugikortasuna sustatzeagatik onarpena jaso du Udalak

Europako Batzordeak Getxo saritu du, beste bederatzi hirigaz batera, iazko Europako Mugikortasun Astearen egindako kanpainagatik. Batzordeak hiri-mugikortasun iraunkorra sustatzeko eragileak diren tokiko erakundeak saritzen ditu eta udalerrien ahalegina aitortzen du, Europako Mugikortasun Astearen baitan egiten dutenaz gainera, urte osoan neurri iraunkorrak hartzeagatik ere bai.

Getxogaz batera beste bederatzi hiri hautatu dituzte sariketa horretan, 16 herrialdeetako 38 hiriren artean: Leon, Murtzia eta Palma, Estatu espainiarrean; eta Budapest (Hungaria), Larnaka (Txipre), Ostersund (Suedia), Skopje (Mazedoniako Errepublik),

Viena (Austria) eta Zagreb (Kroazia). Hautatutako hamar hirien artean hiru, Murtzia, Ostersund eta Viena, finalista izendatu dituzte, «Gure kaleak, gure hautaketa» 2014ko gaiagaz lotutako jarduera berritzaileengatik.

Martxoaren 23an, astelehenagaz, izan zen sari-banaketa Bruselan (Belgika). Bertan, Ostersund hiriak jaso zuen irabazlearen saria. Hala, Suediako hiriak hiru minutuko bideo profesional baten grabazioa egiteko aukera izango du, haren lorpenak sustatze aldera. Bigarren postua Murtziak lortu zuen.

Hautatutako hamar hiriak, halaber, jardunbide egokien eredu modura bultzatuko dituzte. ◀

Arriluzeko Begoñako galeriak ezagutzeko bisita gidatuak

Apirilaren 2an Begoña galeriak ezagutzeko bisita gidatuak abiatuko dituzte. Eraikin historiko hori Punta Begoña izenagaz ezaguna da. Bertan lehengoratzeko egiten dabilzan lanak ezagutzeko aukera izango dute bisitariak. Guztira, 66 bisita programatu dituzte apiril osoan, goiz eta arrastiz, 12:00etan eta 18:30ean astegunetan, eta 11:00etan, 12:00etan, 17:30ean eta 18:30ean aste akabuetan. Bisitak herritar guztiei zuzenduta daude, baina alde zuzenetik eman beharko da izena. Kanpoaldean galeriak bisitatzeko egokitutako dorretik sartu eta bisitaria eraikineko barrualdean ibili ahal izango da. Gidari espezializatuek bisitak zuzenduko dituzte. Argibide-pane-



Bisitak goizez zein arrastiz egingo dituzte.

lak ere egongo dira, eta dokumentala proiektatuko da eraikinagaz lotura duten pertsonen testigantzakaz. Datozen hilabeteetan beste zirkuitu bat ere eskainiko dute. ◀

info +: www.getxo.net

GARAIZAR
BARRIKUNTZAK
ERAIKUNTZA ZERBITZU INTEGRALAK
Tel. 94 430 52 43 / 607 952 977-6
rgaraizar@gmail.com - www.garaizar.biz
Illeta kalea 1 ALGORTA

AIXERROTA BHI
• TEKNOLOGIKOA
• BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
• GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)
INFORMAZIO GEHIAGO: www.aixerrota.hezkuntza.net Tf. 94 491 17 86 @AixerrotaBHI

Erandio

Astrabuduan, parking zabalagoa

Astrabuduko metro-geltokiaren ondoan 300 auto gehiago utzi ahal izateko lanak abiatuko dituzte apirilean. Amaitu bitartean, ibilgailuak non laga pentsatu du Udalak.



Astrabuduan 5.100 ibilgailu baino gehiago daude errolatuta. © ERANDIOKO UDALA

Erandioko Udalak Astrabuduko metro-geltokiaren ondoko aparkalekua egokituko eta zabalduko du. Udal iturriek jakinarazi dutenez, asmo horiek ahalbidetzeko daborduko akordio bat itxi dute Inbisa Inmobiliaria enpresagaz eta Kossler Iberica eraitsitako lantegi-orubearen ugazabakaz. Hitzarmena apirilean gauzatuko da.

Iragarritako zabalpenak metro ondoan beste 300 ibilgailu utzi ahal izatea ahalbidetuko luke etorkizunean, Joseba Goikouria alkateak gidatzen duen Gobernu Taldearen arabera.

Udalak azaldu duenez, «neurri horren bidez, auzoak dituen arazo nagusietako bat arindu» gura dute. Izan ere, gogoratu dutenez, Astrabuduan, guztira, 5.100 ibilgailu baino gehiago daude errolatuta. Halere, bai bertako aparkalekua egokitzeko beharrek, bai osasun-etxeko 70 lekutik 200 lekura

handitzeko obrek egoera kaskartzea eragingo dute, «behin-behinean bada ere». Hori dela eta, lan horiek zehar kalte nabarmen barik aurrera eroan ahal izateko, autoak uzteko beste gune bat bilatzeari ekin zion Udalak.

Behin-behineko konponbidea

Horren eraginez, Inbisak metrotik hurbil dituen lurak erabiltzeko akordioa itxi berri du Udalak. Lursail hori Axpe-Udondo egikaritze-unitatean dago eta berau garatu arte erabili ahal izango du Udalak. Axpe-Udondo gunea aparkalekua izan dadin egokitzeko eta gaur egungo eremua moldatu eta zabaltzeko inbertsioari Kossler Ibericako lursailen jabeek egingo diote aurre. Era berean, hitzarmenak jasotzen duenez, lur horietan behin-behineko jarduerak egin ahal izango dira: aste-ko azoka edo barrakak jarri ditu adibidetzat Udalak. ◀

Apurtutako lauzak desagerrarazi guran

Erandioko Udal Gobernuak ekin-tza-planean murgilduta dago, Astrabuduan eta Altzagan baldosak eta espaloiak konpontze alde-ara. Udalak berak gogoratu duenez, hobetze-lanak egiten dabiltza udalerriko hainbat eta hainbat lekutan, «auzokideen ongizaterako». Aske dauden lauzak kendu eta berdinak edo antzekoak diren baldosa berriak jartzen dabiltza, jende gehien dabilen herriko lekuetan. Kontu estetikitzat jo badaiteke ere, asmoa, batez ere, segurtasuna mantentzea da, lurraren narriadurak «erorketak, labainketak eta bihurka-

dak eragin baititu», udal arduradunek onartu dutenez. Astrabuduan lanak honako lekuetan izango dira: Bilboko Kotsul-etxe, Alkone, San Lorenzo, Atxe eta Txakurzulo kaleetan zein Josu Murueta plazan. Altzagan, ordea, apurtutako baldosak aldatuko dituzte Pagoeta, Desanexio, Txinboak, Llona, Mitxelena eta Bereterretx kaleetan. Zerrenda horretako guneak konpondu ondoren, udalerriko beste leku batzuetara joko du Udalak, asmo bera-gaz. Erandioko PSE-EEK behin baino gehiagotan horrelako lanak eskatu izan ditu aurretik. ◀

Altzagako Benjamin Anaia plaza berritzeagaz batera, aparkatzeko hainbat leku desagertuko dira

Oinezkoari protagonismoa emateko asmoz, Altzagako Benjamin Anaia plazan abiatutako lanak ekainean amaitzea espero dute udal arduradunek. 279.000 euroko aurrekontuagaz, proiektuak ekimen nagusi bi ditu: oinezkoentzako leku gehiago izatea eta inguruan zuhaitz gehiago jartzea. Horretarako, orain arte aparkatzeko zauden 71 lekuetatik 39 kenduko dituzte, eta plaza inguratzen duen errepidea errail bakarrera mugatuko dute, espaloiak zabaldu eta altxatzean. Zuhaitzak izango dituen espaloiak zazpi metroko zabalera izango du, eta bes-



Autoz beteta egon ohi da plaza.

te biek, berriz, bost eta 4,5 metro. Benjamin Anaia plazan lanak amaitzen direnean, Udalak Nafarroa Beherea kaleari ekingo dio, auzokideek eskatutako «aisialdirako gune zabalagoak» aintzat hartuta. ◀

I

Inaki
Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza 3 Tf. 94 430 23 45
Telletxe 1 Tf. 94 460 27 41

Algorta

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAILERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf. 94 460 90 31
48990 ALGORTA

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Zabala 9

ALGORTA
Tf. 94 460 70 84



Basagoiti 73, 48991 ALGORTA

Tf. 946 12 07 52
facebook/RebelTattooAlgorta

Leioa

Behargintzak 42 enpresa-proiektu sortzen lagundu du urtebetean



Mendibile kaleko 3. zenbakian dago Leioako Behargintza.

Leioako Behargintzak 42 enpresa-proiektu bultzatu zituen 2014an, udal iturriek adierazi dutenez. Ekonomia eta enplegua sustatzeko herri-erakundeak aholkularitza-zerbitzuak eskaintzen ditu enpresak abiarazteko orduan, negozio berritzaile eta lehiakorrek sortzeko helburuagaz. Leioako Behargintzak daukan «egin-behar nagusia» da «autoenplegu-proiektua martxan jarri gura duten bizilagunei, edo, kanpokoak izanda, Leioan, herriak duen ahalmen ekonomikoagatik, enpresa abiarazi gura dutenei lagundu eta aholkatzea», gaineratu dute agintari leioaztarrek.

Kasu bietan, Behargintzak prestakuntza berezia eskaintzen du enpresak sortzeko eta kudeatzeko arloetan, eta, horrez gainera, negozio-eredua

zehazteko aholkularitza ematen du. Ildo berean, enpresa berriaren bide-eragarritasun-plana gainbegiratu du, eta informazioa ematen du ndokoen gainean: forma juridikoa, hasteko iza-pideak eta diru-laguntzak.

«Azken urteotan batutako datuok berresten digute ekintzailetzak gora-ko joera duela, kasu batzuetan, gaur-ko lan-merkatuko egoeraren eraginez. Hala ere, enpresa sortzeko interesa izan zein langabezia egoera baten ondorioz izan, jendea udal-zerbitzu honetara dator ilusio eta gogo handiz, eta horiek dira euren proiektuari forma ematen hasteko zutabeak», azaldu dute Leioako Behargintzatik. Udal aldizkarian emango dute udalerrian zein leioaztarrek kanpoan sortutako enpresen berri. ◀

Euskara sustatzeko diru-laguntzetarako epea zabalik

Martxoaren 16an euskarazko jarduerak sustatzeko diru-laguntzen ematea arautzen duen deialdia argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialean (BAO). Denetara, 14.000 euroko partida bideratu dute horretara. Diru-laguntza horien xedea da euskararen erabilera sustatzea helburu duten ekintzak eta programak bultzatzea Leioan, udal iturriek adierazi dutenez. Apirilaren 15ean amaituko da eskakera aurkezteko epea.

Onuradunak izango dira irabazi asmo bako erakunde edo elkarteak, legez eratuak, baldin eta egoitza Leioan badute, Leioako Udalaren Elkarte Erregistroan izena emanda badaude, eta jarduerak, batez ere, udalerrian

egiten badituzte. Horrez gainera, pertsona fisikoek ere eskatu ahal izango dute diru-laguntza, noizbehinkako ekimenetan talde baten ordezkari partikularrak badira, irabazteko asmo barik jarduten badute eta udalerrian erroldatuta badaude. Eskabidea udal-letxeko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dagokion epean.

Diru-laguntza ebatzi eta 30 eguneko epean ordainduko da. Bestalde, onuradunak, diru-laguntza justifikatzeko, gastatutakoaren zerrenda aurkeztuko du behin diru-laguntza jasotzen jarduera amaituta. Gainera, 2016ko otsailaren 28a baino lehenago, hainbat dokumentu aurkeztu beharko ditu, jardueren memoria barne. ◀

San Juan jaietako probak prestatzen dabilta kuadrillak

Leioako kuadrillei deialdi berezia legin diete Udalaren webgunearen bitartez. Hala, aurtengo San Juan jaietan parte hartu gura duten lagun-taldeei begirako hainbat hitzordu ipini dituzte. Jakinarazi dutenez, martxoaren 11tik batzen dabilta San Juan jaietako kuadrillen proben egitaraua lantzeko eta prestatzeko.

Bileretan parte hartu gura duten lagun-taldeen Kultur Leioara joatea baino ez daukate ondoko egunetan: apirilaren 15ean eta 22an, maiatzaren 13an eta 27an, eta ekainaren 10ean. Apirilaren 15eko batzarra txiki eta gaztetxoek kuadrillentzat izango da bakarrik, eta 22koa, nagusientzat. Batzarrenak 19:00etan izango dira. ◀

Batzarrak

Apirilak 15, eguaztena

19:00

Txiki eta gaztetxoek kuadrillak, Kultur Leioan.

Apirilak 22, eguaztena

19:00

Nagusien kuadrillak bakarrik, Kultur Leioan.

Maiatzak 13, eguaztena

19:00

San Juan jaietako txikien zein nagusien kuadrillak, Kultur Leioan.

Maiatzak 27, eguaztena

19:00

San Juan jaietako kuadrillak, Kultur Leioan.

Ekainak 10, eguaztena

19:00

San Juan jaietako kuadrillak, Kultur Leioan.

LUBERRI
Basolanak S.L.
LOREZAINZTA

SGS
W 88109014

SGS
W 88109015

hudean

- Soropila Ezartzea
Iuzturra prestatzeko lanak, dreinatze lanak, ureztatze sistema ezartzea, funtzioak organitze lanak eta erate lanak.
- Soropila zaintzea eta mantentzea
Moztea, ureztatzea, organitzea, egurastea, aratzea eta desnatikazioa, soropil gaitzak eta belar gaitzak tratatzea.
- Inausketak
Hazteko, mantentzeko, berritzeko, zibilizazio aroingamari inausketak, erabateko inausketak.
- Barrukaldeak lorategi bihurtzea

Axpe ibaiertza 28A beheko solairua B12 lokala (ERANDIO) Mug: 629 41 18 38 - Tf: 94 467 17 13 - Faxa: 94 467 42 41
luberi@euskalnet.net - www.luberi.biz

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz

BETIKO
IKASTOLA

0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.
Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.
Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.
Ikastolen Elkarte Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaituz: Tf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)
info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net

50
BARRUKALDEAK

Sopela

Berdea grisaren orde, Ingestan

Sopelako Udalak Ingesta inguruaren berreskurapen ekologikoa bultzatuko du.

Ekologia aplikatuaren bigarren proiektua gauzatuko du Sopelako Udalak hurrengo hilabeteetan. Urko paduraren berreskuratze ekologikoaren ostean, oraingoan Ingesta inguruaren txanda izango da, Atxabiribil hondartzaren goiko aldean, hain zuzen ere. Udal iturriek nabarmendu dutenez, gaur egun inguru hori egoera kaskarrean dago: bere garaian aparkalekutzat erabili zen, eta gizakiaren esku-hartzearen eraginez degradatuta dago. Udalaren proiektu honek, Ingestako eremua lehengoratu gura dute, hau da, naturak berez egiten dituen urratsak kopiatu eta azkartuko dituzte: «Horregatik deritzogu ekologia aplikatuaren proiektu bat dela. Gizakiaren esku-hartzea ezabatu gura dugu, Sopelan hirigintza-arloan orain arte egin den kontrako norabidea jarraituz».

Proiektua La Suma Paisajistas estudioak egin du, Sopelako Udalaren aginduz, eta lanen aurrekontu osoa

105.000 eurokoa izango da. Eusko Jaurlaritzak 50.000 euroko diru-laguntza emango dio Udalari proiektua gauzatzeko.

Beren-beregi, proiektua Udalaren jabetza diren 193, 220 eta 221 partzeletan gauzatuko da. Guztira, 2,3 hektarea dituen lurzorua da, eta paisaia zein ingurumen aldetik balio handia du. Hori dela eta, Udalak inguru horretan jatorrian zegoen landaretza landatuko du: «Ingestan haizeak indar handia du eta kresalaren eragina nabarmena da. Horregatik, inguru honetako landaredia oso ahula da eta babestu beharra dago». Europa osoan landaretza-mota horretako gunek gutxi geratzen direla nabarmendu du Udalak.

Horrez gainera, landare inbaditzaileak (*Pitosporum tobira* eta Uribe Kostan oso ohikoa den panpa-landarea, edo *Cortaderia selloana*) desagerrarazteko neurriak hartuko dituzte, horrelako landare ugari dagoelako.

Apo lasterkariarentzat, babes

Ingesta modu ekologikoan berreskuratzeaz gainera, Udalak inguru horren erabilera publikoa ere antolatu gura du. Gaur egun, bertatik GR-123 ibilbidea pasatzen da, baina ibiltari,



Proiektua Atxabiribil hondartzako goiko aldean gauzatuko da. SOPELAKO UDALA

txirrundulari eta motorren joan-etorriak ingurua kaltetu du, ez dagoelako zehaztuta bide argirik. Proiektuan inguruneagaz integratuta dagoen ibilbide bat egingo da, eta hala inguru osoa babestu gura dute. Etorkizunean eremu horretan eraikiko den skate-parkeak ere lotura izango du ibilbide horregaz.

Proiektuan ere babes berezia eskaini diote apo lasterkariari (*Epidalea*

calamita). Azken urteotan Gorrondatxetik Barinatxera gerturatzen hasi denez, Ingesta ere prestatuko dute apoari harrera egiteko. Aranzadi Zientzia Elkartea da apo lasterkaria babesteko egitasmoaren arduraduna, Udalagaz batera, eta Ingesta espezie horren biziraupenerako oso garrantzitsua izan daitekeela iritzia diote. Hori dela eta, inguru horretan hainbat putzu sortzeko aukera aztertuko dute ◀

Udaltzainburuaren dimisioa eskatu dute

Sopelako PSEk udalerriko udaltzainburuaren dimisioa eskatu du, alderdi horren arabera Udalak modu ilegalean egin zuelako langilearen kontratazioa. Teresa Fernandez bozeramaileak salatu duenez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak udaltzainburuaren kontratazioa bertan behera uzteko eskatu dio Udalari, publizitate eta berdintasun baldintzak modu egokian bete ez zituelakoan. Horrez gainera, epaitegiak mila euroko isuna ezarri du.

Fernandezek iragarri duenez, Udalak udaltzainburua ez badu kaleratzen, PSEk epaitegiatarako joko du: «Bilduren jarrera lotsagarria da. Udaltzainburua modu ilegalean izendatu zuten, eta orain bide beretik jarraitu gura dute». Egoera hau konpontzeko asmoz, Udalari lehiaketa publiko bat antola dezala eskatu dio Fernandezek, «irregulartasun hau luzaroan mantendu beharrean».

EH Bilduren Udal Gobernuak, ostera, hauteskundeak lotu du PSEren oharra. Azaldu dutenez, udaltzainburuaren izendapena «behin-behinekoa» izan zen, Sopelako udaltzainek ez zituztelako postu hori betetzeko gutxienezko baldintzak betetzen. Hori dela eta, behin-behinean, udaltzainburu hori izendatzea erabaki zuten.

Udalak argitu duenez, iaz auzitegiaren epaiaren berri izan eta berehala, udaltzainburu berrirako hautaketa-prozesua antolatzen hasi ziren: «Deialdia Bizkaiko Agerkari Ofizialean argitaratu zen urriaren 14an, eta datozten asteetan udaltzainburu berriaren izendapena gauzatuko da». Horrenbestez, «gezurretan aritzea» leporatu diote PSEri, Udalak «epaitegiak eskatutakoa egin duelako». EH Bilduk argitu duenez, «gure asmoa Udaltzaingoaren zerbitzu publiko hobetzea izan da eta horretan jarraituko dugu, erresistentzia guztien gainetik». ◀

Zapatuan Gure Esku Dagok kolore-katea antolatu du

Sopelako Gure Esku Dago taldeak Sekaineko ekimen nazionala buru-belarri prestatzen jarraitzen du. Giroa berotzen joateko, martxoaren 28an udaletxeko plaza inguruan «kolore-katea» osatuko dute. Herritarrek margotutako oihal kateakaz giza-katea egingo dute erdigunean. Hitzordua 13:30ak aldera jarri dute, Korrikak antolatu duen erromeriaren ostean. ◀



Fracking-aren kontrako konpromiso-batzea hasi da

Alderdi politikoei dei berezia egin die Sopelako Fracking-aren kontrako asanbladak, alderdiek haustura hidraulikoaren inguruan euren iritzia argi dezaten. Lehenengo eta behin, elkarte eta herriko dendariei konpromisoa eskatu diete: «Daborduko Sopela 'fracking gabeko udalerrira' izendatu da, baina hori ez da nahikoa. Teknika honen gaitzespen soziala erakutsi

behar dugu». Informazio-kanpaina egin ostean, orain alderdi politikoen txanda da: «Gure hurrengo helburua haien konpromisoa lortzea da, alde edo kontrako iritzia erakustea». Asanbladak alderdiak gonbidatu ditu fracking-aren inguruan berba egitera. Era berean, auzokideak gonbidatu dituzte asanbladan parte hartzera. ◀

Info+: sopelafackingez@gmail.com

Urduliz

Ekintzaileentzako haztegia aurrera doa

Behargintzako enpresen haztegiak hiru ekintzaile hartzen ditu daborduko. Iazko ekainean zabaldu zuten, eta hurrengo hilabeteetan guztiz betetzea espero dute.



Enpresen haztegia Errementariena kalean dago.

Urdulizko Behargintzako enpresen haztegiak hiru ekintzaile enpresa-proiektuak hartzen ditu daborduko. Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateko Behargintzak iazko ekainean jarri zuen martxan aipatutako enpresen haztegia, eta, guztira, 6 ekimen hartzeko lekua dauka. Hango ardura-dunek jakinarazi dutenez, datozen hilabeteetan beste hiru proiektu hartzea aurreikusi dute.

Urdulizko enpresen haztegia Errementariena kalean dago, Udalak utzitako lokal batean. Hura txukundu eta birmoldatu ostean, lokalak sei enpresa-proiektu berri hartzeko lekua dauka. Bertan lan egingo duten ekimenek, gehienez, urte bi eman ahal izango dituzte.

Lokalaren batezbesteko alokairua 100 eurokoa da hilabete bakoitzeko, eta horren barruan elektrizitatea eta garbiketa-zerbitzuak daude.

Proiektuak garatzeko lekuez gainera, zerbitzu komunak eta bileretarako gela bat ditu lokalak.

Autoenplegua garatuz

Urdulizko enpresen haztegi horrek eskualdeko autoenplegu-proiektuak garatzeko aukera eskaintzen du. Behargintzako arduradunen arabera, mota horretako ekimen ugari daude gurean. Izan ere, iaz 300 pertsonak baino gehiagok negozio bat garatzeko interesa agertu zuten Behargintzako bulegoetan, eta horietatik, 50 lagun inguruk euren helburua lortu zuten.

Gero eta ekintzaile gehiago

Aurten, gainera, lehenengo hiruhilekoan iazko erritmoa handitu da. Daborduko egunero pertsona batek agertzen du negozio berri bat zabaltzeko interesa, batez bestean. Askok krisiak bultzatuta hartzen du bide hori; beste askok, euren interes propioengatik. Dirudienez, ohikoa da horrelako bidea hartzea Uribe Kostan, Behargintzako arabera.

Halaber, ekintzaileentzako 250.000 euroko diru-laguntzak lortu dituztela jakinarazi dute. ◀

Info+: www.urkobe.net

Gorliz

Indaba-txapelketa egingo dute hilaren 28an, Iberrebarrin

Gorlizko Merkatari Elkarteak (GOSKOA) indaba-txapelketa antolatu du martxoaren 28rako, zapa-tuagaz. Aurtengoa bosgarren ekitaldia izango da, eta hitzordua goizeko 09:00etan jarri dute, Iberrebarri plazan. Horretan parte hartzeko, alde aurretik izena eman eta 10 euro ordaindu beharra dago. Hala ere, doako izen-ematea lor daiteke indabak egiteko osagaiak GOSKOako dendetan erosiz gero. Parte-hartzaileek tresna denak eroan beharko dituzte etxetik: su txikiak, lapikoak, mahaiak, lanabesak... Indabak tradiziozko moduan egin beharko dituzte eta lapikoak



Indabak tradiziozko moduan egin beharra dago.

eguerdiko 13:30ean aurkeztu. Lehenengo saria «etxean egindako» Balmasedako lapikoa izango da. ◀

Info+: facebook.com/GoskoaGorliz

Fracking-aren kontrako seinaleak jarri ditu Udalak

Udalak Gorliz «fracking gabeko udalerri» izendatzen duten hainbat seinale jarri ditu, horietako bat herriaren sarreran, Trebiñu eta Andra Mari kaleen arteko bidegurutzean. Gorlizko Udala 2013ko maiatzean fracking-aren kontra agertu zen, Udaltzaren gehiengo osoagaz. Halaber, haustura hidraulikoaren kontra egiteko taldea sortu berri dute, Barrikan, Plentzian, Gorlizen eta Lemoizen lan egingo duena.

Sopelako Udalak bide berdina hartu zuen 2014ko abenduan, eta horren berri emateko bi panel ezarri zituen herriko sarreretan. Hala ere, Bizkaiko



2013an fracking-aren kontra agertu zen Udala.

Foru Aldundiak eskutitz bidez foru-errepideko bazterretik kentzeko eskatu ostean, Udalak seinaleak lekuz mugitu behar izan ditu. ◀

Gosariak, Pintxoak, Giro eta musika onena ONGI ETORRI!!

Bentabxu 2 Tf. 94 676 03 28 SOPELA

Especialistas en desayunos abrimos desde las 07:00h. y 08:00h. los fines de semana y festivos

www.cafebarzuazua.com

Iturgibiti 13, PLENTZIA Tf. 94.677.31.28

Café-Bar Zuazua



OIARBIDE DEKORAZIOA

Pladur: Tabikeak, zapaia, batoak
Eskaiola: moldurak, kornisak
Isolamendua: Beroa, hotza, zarata...

Tf. 656 76 98 10 gorkaoiARBIDE@hotmail.com
Andikoetxe 2, GETXO

LURREN

GOSARBAK, PINTXOAK, KOPAK, MUSIKA ETA GIRO EDERRA
SOPELA, Ripa kalea 1 (Udalekua atzean)

Hurtzaindegitik batxilergora arteko eskaintza

Gatzarriñe bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus

ander deuna
I k a s t o l a

Barrika

Muriolako txaletak, erregularizatuta

Udalak alde horretan eraikitako hamalau etxeen egoera erregularizatu du; Bizkaiko Foru Aldundiak onartu behar du oraindino.

Barrikako Udalak Muriola aldeko arau subsidiarioak aldatzea onartu zuen azkeneko Udalbatzan, gehiengo osoagaz. Hori horrela, gatazka horretan parte hartu duten alde guztien onurako erabakia lortu da behin-behinean.

Erabaki horregaz, udalerriko alde horretan orain dela hamarkada bat baino gehiago eraikitako 14 etxebizitzak «planteamenduagaz ez-ados» bezala izendatuko dituzte Barrikako HAPOn. Izendapen horregaz, hamalau txalet horien existentzia bermatzen dute, HAPO osatu baino lehenago eraiki baitzituzten.

Ezarritako baldintzak

Hala, eraikin horiek etxebizitzak, ga-



Udalak Muriola aldeko ingurumena hobetzeko plana osatuko du.

rajeak eta txokoak izan ahalko dituzte, arazo barik. Hala ere, etxeei bestelako erabileraren bat eman gura izanez gero, bulegotzat bakarrik onartu ahal izango da. Halaber, erreformak eta eraikinen hobekuntzak onartu arren, ezin izango dira partzelazioak egin, etxeak handitu edota etxeak aldatu; hala ere, etxea horizontalki banatu ahal izango da, baina ez zati bitan baino gehiagotan. Udalerriko urbani-

zazio-plan berriaren arabera, Muriola aldea lur ez urbanizagarria izango da, eta «ingurumeneko hobekuntza-babes berezia» ezarriko zaio. HAPOn adostutako prozesu horiek guztiak oraindik Bizkaiko Foru Aldundiak onartu behar ditu behin-betiko.

Halaber, Barrikako Udalak Muriola-Barrikabaso aldeko ingurumena hobetzeko plana osatuko du datozen hilabeteetan. ◀

Berango

Ahatetxo itsusia, umeentzako antzerkia, domekan

Martxoaren 29an, domekagaz, Metxeko txikienek *Ahatetxo itsusia* antzezlanagaz gozatzeko aukera izango dute. Ikuskizuna euskaraz izango da. Hitzordua 18:00etan ipini dute Berango Antzokian, eta antzerkia ikusteko interesa dutenek 3 euro ordaindu beharko dituzte sarreran. ◀



Italiar sukaldaritza ikasteko hainbat tailer egingo dituzte

Martxo eta apiril bitartean, Mara Mara familia-elkarteak adin guztietarako hainbat tailer antolatu ditu Alessandro Soraceren La Fabbrica dei Sapore eskolagaz batera. Lehenengo hilaren 29an izango da, domekagaz. Horretan pizzak egiten ikasiko dute, 10:30etik 13:00etara, 30 euroren truke. Hurrengo, umeentzako pizza tailerra izango da eta apirilaren 6an egingo dute, astelehenagaz, 10:30etik

12:30era. Apirilaren 12an, berriz, risottoa egiten ikasi ahalko da, 11:30etik 14:00etara. Apirilaren 18an, zapa-tuagaz, pasta freskoa eta saltsak zelan egin irakatsiko dute, 10:30etik 13:30era, 35 euroren truke. Azkenik, apirilaren 26an, pizza egiten ikasteko bigarren tailerra egingo dute, 10:30etik 13:00etara. Tailer guztiak Lantzarte kaleko 9. zenbakian dagoen egoitzan izango dira. ◀

Uribe Kosta

Fracking-ari kontra egiteko talde berria sortu dute eskualdean

Lehenengo Getxon, gero Sopelan eta Lorain Barrikan, Plentzian, Gorkizen eta Lemoizen. Fracking-aren kontrako taldeak gehituz doaz gure eskualdean, eta sortzen azkenekoa lau herri horietan lan egingo duena da.

Joan den martxoaren 10ean batu ziren Barrika, Gorkiz, Lemoiz eta Plentziako auzotarrak Goñi Portalean, haustura hidraulikoari aurre egiteko plana zehazteko asmoz.

Hiru dira daborduko fracking-aren kontrako taldeak Uribe Kostan; euren helburua, ostera, herri bakoitzean talde bat sortzea da, «eskualdean mugimendu anitza eta indartsua lortzeko». Izan ere, presio hidraulikoaz baliatuz lurzoruko arroak hautsi eta gas naturala ateratzeko teknika hori ate joka dabil gure eskualdean; Bizkaiko kostaldean zehar fracking-aren bidez gasa ustiatzeko proiektu bat dago eta martxan, Geminis deritzona. Horrek Getxo eta Bermeo arteko 47.940 hektarea hartzen ditu. ◀



Lumak astindu

KOLDO TELLITU MEJIA
Ikastolen elkarteko lehendakaria

Hizkuntza- eskubideak osasungintzan

Ohituak gara espainiar politikaren sektore kontserbadoreenaren partetik osasun alorrean hizkuntza bigarren mailako kontua dela entzutera, garrantzitsuena osasun zerbitzuaren kalitatea dela, osasun alorreko profesionalak bere baitan biltzen duten esperientzia eta formakuntza direla oinarritzko kontua.

Hala ere, guztiontzako osasun zerbitzu publikoaren aldarrikapen politikoaren baitan osasunaren alorrean gure hizkuntza eskubideak bigarren mailako gai modura planteatzea bai da albiste bilaka daitekeen nobedadea. Izan ere, zelan izan daiteke guztiontzat, euskaldunok behin eta berriro gure hizkuntzan artatuak eta ulertuak izatearen eskubidea urratuta ikusten dugun osasun zerbitzua?

Min handiena ematen duena enpatia eza da, badakigunean hau planteatzen duten politikarien hizkuntza ez dela inoiz mehatxupean egon, inoiz ez direla menpeko sentitu, ez dituztela hitz egiten duten hizkuntza dela-eta lotsarazi, eta bereizkeria eta estigmatizazioa arlo ekonomiko eta sozialetik etorri zaizkiela. Baina horrexegatik hain zuzen ere, zelan da posible hizkuntza eskubideagatik diskriminazioa ikusezin izatea haien-tzat? Zelan ahaztu dezakete gure hizkuntzan artatuak izatea eskubide bat dela eta eskubideak inoiz ez direla bigarren mailakoak eta horrek herritarren arteko desberdintasunak sortzen dituela? Agian bigarren mailako gaiak dira elkarbizitza linguistikoa eta kohesio soziala?

Azkenean zera ari gara ikusten, sektore kontserbadoreenak eta sortu berri den progresia berri honek, Frantzia gertatzen den modura, amankomunean dutela hizkuntza eskubideei dagokien kontua bigarren mailakotzat izatea beraien oinarritzko planteamendu politikoetan. ◀

Plentzia

Konponbidea gura dute



Auto batek institutuko ikasle bat harrapatu zuen urtarrilean, inguru horretan.

Geltokiaren inguruan segurtasuna areagotzea eta eskola-garraioak ohiko zerbitzua berreskuratzea exijitu du IGEk.

Apirilaren 2an Plentziako metro-geltokia itxiko dute, Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeko lanen ondorioz. Hori dela eta, Plentziako erabiltzaileek ordezko autobus-zerbitzua erabili beharko dute. Egoera horrek ezinegona sortu du Plentziako Ikasleen Gurasoen Elkartearen (IGE). Izan ere, haien arabera, «inguruaren arriskua asko biderkatuko da».

Krisi ekonomikoa dela eta, Plentziako ikastetxeetara joateko hainbat eskola-autobus eskaintza bertan behera utzi dituztela jakinarazi du Nerea Larrinaga IGEko lehendakariak.

Azaldu duenez, egoera horren ondorioz hainbat ikasle oinez joan behar izaten dute eskolara. Hori dela eta, inguru horretan istripuak jazotzeko aukerak ugariak direla salatu du.

Horren guztiaren aurrean, eta arazo hori ebazte aldera, bertan behera utzitako autobus-zerbitzua berrabitzeko eskatu zioten Eusko Jaurlaritzari. Erantzunik jaso ez dutenez, eskari bera eginez beste gutun bat helarazi diote Eusko Jaurlaritzari, oraingoan Independententeak, EAJ eta EH Bildu alderdi politikoen babesagaz.

Idazkian gogoratzen dutenez, egoera asko okertu da eskola-garraioak murriztu zituztenetik. Horren adibide da, esate baterako, urtarrilean metro-geltokiaren inguruan auto batek institutuko neska bat harrapatu izana. Neska horrek ezin izan ei zuen autobusa erabili aipatutako murrizketen eraginez. ◀

Joskintzan trebatzeko tailerra antolatu dute

Plentziako Udalak bertako zein inguruko herrietako auzotarrak joskintzan trebatzeko ikastaroa antolatu du; martxo amaieran hasi eta apirile-ra arte.

Josten eta sortzen ikasi ahal izango da tailer horietan, eta gura duenak izena eman ahal du ikastaroan parte hartzeko. Horretarako, interesa duenak Goñi Portalera joan beharko du inskripzioa egiten.

Ikastaroak zazpi saiotan banatuta egongo dira: martxoaren 30ean eta 31n, eta apirilaren 1ean, 7an, 8an, 9an eta 10ean. Saio guztiak Goñi Portalean bertan egingo dituzte, arrastiko 16:30etik 20:00etara. ◀

Info+: www.plentzia.net

Kontzertua eta tailer ugari, Danontzat-en

Plentzia eta Gorliz artean dagoen Danontzat gaztetxeak egitarau oparoa prestatu du martxorako. Hilaren bukaeran gaude, baina oraindik ere badago zer eginik zentro autogestionatu horretan. Bada, hilaren 27an, zapatuagaz, Txipli-Txapla Otxotea taldearen kontzertuagaz gozatzeko aukera egongo da; hitzordua, 19:30etik aurrera. Horrez gainera, astero egiten dituzten hainbat ekimen antolatzen dituzte bertoko neska-mutiek, berbarako: gitarra-ikastaroa astelehenero, 19:00etatik aurrera; martitzeno, ingelesezko berba-lagunak, 20:00etan; eta euskal dantzen ikastaroa, eguazteno, 19:30etik aurrera. ◀

Info+: facebook.com/danontzatgaztetxea

Unibertsitatea

Graduondokoak aurkeztu ditu EHUk

Ehunetik gora dira EHUk eskaintzen diren master ofizialak. Gehienek urtebeteko iraupena dute eta doktoregorako sarbidea ematen dute. Bestalde, graduondoko berezko ikasketak Unibertsitateak berak antolatutako ikasketa espezializatuak dira, «gizartearen beharrei malgutasunez» egokitzen direnak. Karrera profesionala bideratzeko edota norabidez aldatzeko baliagarriak dira berezko tituluak. Datorren ikasturtean 40 bat eskainiko dira.

Graduondoko eskaintzak 65 dokto-

regoprograma ere jasotzen ditu, tesia egiteko bidea jorrotzen dutenak. Batez beste, hiru urte beharrezkoak dira tesia egiteko, jardunaldi osoan.

Eskaintza zabal hori martxoaren 13an Bizkaia Aretoan (Abandoibarra 3, Bilbo) egindako Master Astean aurkeztu zuen Euskal Herriko Unibertsitateak. Bertan master ofizialei, doktoregoko programei eta berezko tituluei buruzko informazioa eskaini zitzaion ikasleei, era pertsonalizatuan eta berbaldien bidez. Beken eta laguntzen gainean ere jardun zuten. ◀

DONIENE GORRONDONA
TXAKOLINA

Tel.: 94 619 47 95
www.donienegorrondona.com
gorrondona@donienegorrondona.com

ITXASGANE

prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Atriluze z.g. • Tlf. Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Periodontzia
- PADI

Bidebarri 27, beheka eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

GURE ETXEA
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

ETXEKO ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris

MARKA GUZTIAK
24 ORDUTAN ERANTZUNA
3 HILABETEKO GARANTIA
IRTEERA DOAN

Tf. 94 430 52 00 - KASUNE 18 - ALGORTA
www.lacofris.es - sat@lacofris.es

Taberna Berri

Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf. 94 430 64 93

TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
Tf. 94 676 07 15

Uribe Kosta

Plentzia eta Sopela arteko bidea autobusez egin beharko da



Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeko lanen ondorioz, apirilaren 2an Plentziako metro-geltokia itxiko dute.

Metro Bilbaoko azken trenbide-pasagunea lurperatzeko lanak egingo dituzte Urdulizen. Horren ondorioz, Plentzia eta Sopela arteko metro-zerbitzua etengo dute. Horren ordez, autobus-zerbitzua eskainiko dute, 18 hilabetez.

Metro Bilbaoko trenbideko azkeneko pasagunea lurperatzeko lanak abiatuko dituzte Urdulizen, apirilaren 2an. Obra horiek 18 hilabete inguru iraungo dutela aurreikusi dute arduradunek. Denbora tarte horretan, Sopela eta Plentzia arteko trenbidea itxiko dute. Hori dela eta, apirilaren 2tik aurrera ez da Plentzia eta Sopela arteko metro-zerbitzurik egongo, eta Plentziako metro-geltokia itxi egingo dute 18 hilabetez. Ondorioz, bi herri horien arteko zerbitzua autobusez eskainiko dute.

Apirilaren 2tik 6ra bitartean, autobusek Larrabasterra eta Plentzia arteko tren-zerbitzua ordezkatuko dute; apirilaren 7tik aurrera, berriz, zerbitzua Sopelatik Plentziara mugatuko da, obrak amaitu arte. Urdulizko obra horiekaz, metroaren sareko azkeneko trenbide-pasagunea kenduko dute, trenbideko 543 metro lurperatu ondoren. Lanak egiteko 21 milioi euroko aurrekontua dute.

Autobusen maiztasuna

Trenen ordezko autobus horien maiztasuna 20 minutukoa izango da egunez; ostera, apirilaren 13tik aurrera 18 minutukoa izango da, astelehenetik

Ordezko autobus-zerbitzuan Metro Bilbaon erabiltzen diren bidaia-txartel guztiak erabili ahal izango dira

barikura arte, 10:00etatik 16:00etara. Gauez, azkenik, 30 minutukoa izango da maiztasuna.

Iaz ez bezala, apirilaren 4an, zapatuagaz, ez dute gaueko zerbitzurik eskainiko. Hori horrela, autobus-zerbitzua 23:00etan amaituko dute egun horretan.

Ordezko geltokiak

Autobus horiek hartzeko geltokiak ho-

nakoak izango dira: Sopelan, Lizerre kalean, geltokiaren aurrean; Urdulizen, Aita Gotzon kaleko 23. zenbakian, BBKren ondoan, Plentziarako noranzkoan, eta Aita Gotzon kaleko 18. zenbakian, jubilatuen etxearen ondoan, Sopelarako norantzan; Plentzian, berriz, Geltoki kaleko 1. zenbakian, geltokiaren ondoan bertan; eta Larrabasterran, azkenik, apirilaren 2tik 6ra bitartean, Gatzarriñe kalean, metro-geltokiaren ondoan.

Onartutako bidaia-txartelak

Metro Bilbaon erabiltzen diren txartel guztiak erabili ahal izango dira autobus-zerbitzu horretan, betiere C tarifa gunerako baldin badira, Metro Bilbaoko iturriek jakinarazi dutenez.

Autobusetan ez da txartelik salduko. Horren ordez, Sopela eta Plentzian txarteldegiak egongo dira. Urdulizen, berriz, Bizkaiko Garraio Partzuergoaren (BGP) informazio-etxolaren ondoan eta jubilatuen etxearen ondoan erosi ahal izango dira. Txartelak autobusean sartzean balioztatuko beharko dira.

Urdulizko trenbide-pasagunea lurperatzeak 6.000 metro koadrotik gorako aisialdirako lekua sortzea ekarriko du. Horrez gainera, lurpeko geltokia eraikiko dute, «fosferito» eta guzti. ◀

Autobus-geltokiak

Larrabasterra

Apirilaren 2tik 6ra

Gatzarriñe kalea, metro-geltokiaren ondoan.

Sopela

Apirilaren 2tik obrak amaitu arte

Lizarre kalea, metro-geltokiaren aurrean.

Urduliz

Apirilaren 2tik obrak amaitu arte

Plentziarantz: Aita Gotzon kalea 23, BBKren ondoan.

Sopelarako: Aita Gotzon kalea 18, jubilatuen etxearen ondoan.

Plentzia

Apirilaren 2tik obrak amaitu arte

Geltoki kalea 1, metro-geltokiaren ondoan.

Maiztasunak

Egunez:

20 minutuan behin. Apirilaren 13tik aurrera, astelehenetik barikura, 10:00etatik 16:00etara, 18 minuturik behin.

Gauez:

30 minutuan behin, barikuetan, zapatuetan eta jai-bezperetan.

Apirilaren 2tik 6ra:

Larrabasterra eta Plentzia arteko autobusen maiztasuna 30 minutukoa izango da.



GETXO

Erdibana antzezlanana, barrez lehertzeko aukera

Txalo antzerki taldeak sortutako *Erdibana* komedia eskainiko dute, martxoaren 28an, zapatua, Areetako Andres Isasi musika-eskolan, Jose Ramon Sorozio eta Iker Galartza aktoreek. Hizordua 20:00etan jarri dute eta sarrerak 10 euroan daude salgai. Istoriari dagokionez, daborduko urteetan sartuta dagoen ama batez dihardu antzezlanak, enbolia

eta gripearekin, baina hiltzeko gogogutxi daukana. 50 urteko semea dauka, porrot egiteko zorian dagoen enpresaren jabea dena. Bera zaintzen duen 42 urteko beste seme bat ere badauka emakumeak. Horrek egunerobainatzen du ama, orraztu eta ia-ia baita hil ere.

Jehova testigu batek asteazkenean bisitatzen ditu. Beste alde batetik,

andreak aurrezki-ilibreta asko dauka, baina oso diru gutxi. Eixe baten jabe dira, baina derrigorrean saldu beharrean daude, eta, gauerdian, kontu ezin diren sekretuak elkarriketan ateratzen joango dira. Antzezlanak irauten duen denbora guztia algarartearen pasazuriko ditu Andres Isasira doazen ikusleak komedia berezi honek. ◀

2015/03/26

Los pinguinos de Madagascar familia osoarentzako filma

Ander Deuna kultur aretoa | Barrika
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera doan
18:00

2015/03/26

Una casa en Corcega genero ikuspegiko filma

Kurtzio kultur etxea | Sopela
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera doan. Gonbidapenak ohiko lekuetan.
18:00

2015/03/26

Aste Santuko entzunaldia

Josu Murrueta kultur etxea | Erandio
Eran dioko musika-eskolako ikasleek.
Sarrera doan.
19:00

2015/03/26

Creencias erroneas berbaldia

Algortako kultur etxea | Getxo
Miren Azpeitia dietista eta nutrizionistak emango du hitzaldia, Mu gabarik eikarteak antolatuta.
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera doan.
19:30

2015/03/26

Literatur solasaldia

Algortako Kasinoa | Getxo
Miren Agur Meaberen *Un ojo de cristal* liburuari buruzko solasaldia.
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera doan, lekuak bete arte.
19:45

2015/03/26

Jazz Ciudad musika-taldea

Glass kafetegia | Getxo
Getxo Zuzenean zikloaren barruan.
Sarrera doan.
20:00

2015/03/27

Apaga la luz y metal kontzertua

Udondo gazteetxea | Leioa
Retinosi pigmentario gaixoen aldeko jaialdian.
Malo, Herio, Ready Aim Fire eta In Mute taldeek joko dute.
18:00

2015/03/27

Aste Santuko entzunaldia

2015/03/28

Dixie y la rebelion zombie denontzako filma

Josu Murrueta kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera: 2 euro. Kultur etxean eta udaletxean eskuragarri.
17:00

2015/03/28

Alexander y el dia terrible, horrible, espantoso y horroroso filma

Kultur etxea | Urduliz
Gaztelaniaz izango da, adin guztietarako.
Sarrera: 3,50 euro.
18:00

2015/03/28

Ocho apellidos vascos filma

Berango Antzokia | Berango
Gaztelaniaz izango da.
Sarrera doan.
19:00

2015/03/28

Octopussy eta Screeners & Sinners taldeen kontzertua

Txorimalo gazteetxea | Getxo
Batutako dirua Txorimalo gazteetxearen hamargarren urteurrena finantzatzeko izango da.
Sarrera: 4 euro.
20:00

2015/03/28

Red Army filma denontzat

Josu Murrueta kultur etxea | Erandio
Sarrera: 2 euro. Kultur etxean eta udaletxean eskura daitezke.
20:00

2015/03/28

Cincuenta sombras de Grey

Kultur etxea | Urduliz
Gaztelaniaz izango da. 18 urtetik gorakoentzat.
Sarrera: 4,50 euro.
20:15

2015/03/29

Plentzia eta Mungia arteko ibila Idia

Metro-geltokia | Plentzia
Autobusa jarriko da Mungiako udaletxetik Plentziako metro-geltokiraino.
Aurreikusitako iraupena: 3,5-4 ordu.
Izen-ematea Jata-On do elkartean.
09:00

GETXO

Areetxoren kontzertu sakratuak egunotan

Martxoaren 26an, eguena, Algortako San Martin de Tours elizan kantatuko dute 20:00etan Areetxo abesbatzako lagunek. Hurrengo egunean, barikuagaz, Areetako Santa Ana parrokian emanaldia eskainiko dute ordu berean. ◀

LEIOA

Familia osoarentzako dantzaldia, euskaraz

Martxoaren 29an, domeka, *Auzokoak* euskarazko dantza-ikuskizuna eskainiko du Kultur Leioan Traversee taldeak. Emanaldia 18:00etan izango da eta sarrerak 5 euroan jarri dituzte. Hiru ordu laurdeneko iraupena dauka. ◀

ERANDIO

Emakumeak eszenan, Astrabuduan

Utreia antzezlan eskainiko du Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean Haika taldeak. Emanaldia martxoaren 29an, domeka, izango da, 19:00etan. Sarrerak 2 euroan salgai egongo dira kultur etxean zein udaletxean. ◀



Eñaut Elorrieta, kontzertuan Sopelan

Deserriari ertz guztietatik begiratzen dio Eñaut Elorrietak bere azken proiektuan. Hainbat idazle eta poetaren lumaz ere baliatu da. Haietariko batzuek euren azalean bizi izan dute deserri politikoa, Joseba Sarrionandiak, kasu; beste batzuek deserri poetikoari idatzi diote. ◀

Noiz: Martxoak 27, barikua. 20:00

Non: Kurtzio Kultur etxea

Sarrerak: 6 euro

[Kurtzioan bertan, udaletxean eta Sopelari inbulegoan eskura daitezke.](#)

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektronikoa honetara: hiruka@hiruka.eus

Josu Murueta kultur etxea | Erandio

Erandioko musika-eskola ikasleek

Sarrera doan.

19:00

2015/03/27

Kantagunea

Eliz plaza | Plentzia

Parte-hartzea libre.

19:00 Entsegua.

20:30 Kantu-jira Alde Zaharretik.

Parte-hartzea libre.

2015/03/27

Txipli-txapla otxotea

Danontzat gaztetxea | Plentzia

Sarrera doan.

19:30

2015/03/27

Eliz musika kontzertua

Mesedeetako eliza | getxo

Ondarreta abesbatzak eskainiko du saioa.

Sarrera doan.

20:00

2015/03/27

Udaberriko Kontzertuak

San Agustín eliza | Erandio

Exebebarri Bekoa, Bilboko Andreberri eta

Erandioko Altzaga abesbatzek jardungo dute, 36.

BBK Abesbatzen Kontzertuen barruan.

Sarrera doan.

20:00

2015/03/27

El grito en el cielo antzezlan

Kultur Leioa | Leioa

La Zaran da talde an daluziarrak.

Gaztelaniaz izango da.

Sarrera: 15 euro.

20:30

2015/03/27

La sal de la tierra filma

Andres Isasi musika-eskola | Getxo

Filmaren proiektzioa eta foruma.

Gaztelaniaz izango da.

Sarrera: 2,90 euro.

21:00

2015/03/28

Gure Esku Dago-ren

kolore-taldea

Udaletxeko plaza | Sopela

Sopelako Gure Esku Dago taldeak kolore-katea

egingo du jositako oihal zatiekin, herrian zehar,

eta musikaz animaturik.

Parte-hartzea libre.

12:00

2015/03/29

El guardian de los cuentos haurrentzako antzezlan

Andres Isasi musika eskola | Getxo

La Tartana taldeak, 3 urteik gorako umeentzat.

Gaztelaniaz izango da.

Sarrera: 5 euro.

18:00

2015/03/29

127 horas filma

Txorimalo gaztetxea | Getxo

Gaztelaniaz izango da.

Sarrera eta krispetak doan.

20:00

2015/03/29

Ahatetxo itsusia antzezlan musikala umeentzat

Berango Antzokia | Berango

Glú Glú antzerki taldeak.

Euskaraz izango da.

Sarrera: 3 euro.

18:00

2015/03/30

Liburu-foruma

Uda! liburutegia | Barrika

Rafael Chirbes-en *Crematorio* lana aukeratu dute.

Gaztelaniaz izango da.

Sarrera doan.

18:00

2015/03/31

Irakurzaleen kluba

Josu Murueta kultur etxea | Erandio

Eduardo Mendozaren *Sin noticias de Gurb*

aukeratu dute. Aurretik, Juan Viadasek eta

Carmen Pardok eleberriararen egokitzapenaren

irakurketa antzeztua egingo dute.

Gaztelaniaz izango da.

Sarrera doan.

19:00

2015/03/31

Coherence filma

Kultur Leioa | Leioa

Ingelesz izango da, gaztelaniazko azpitituluekin.

Sarrera: 2,50 euro.

20:00

2015/04/04

In perpetuum mobile

antzezlan

Andres Isasi musika eskola | Getxo

Alambike taldeak.

Gaztelaniaz izango da.

Sarrera: 3 euro.

19:00

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Lanak bidaltzeko epea maiatzaren 26an amaituko da. SCHLAIER



nez ere, eta euskarak ere «presentzia» eduki behar du.

«Egokia da gaur egun dugun hezkuntza-sistema? Zer ikasi behar-ko genuke beste metodologia edo herrialdeetatik? Gazteen hitza kontuan hartzen da sistema hau diseinatzeko orduan? Erreformekin, hezkuntza-sistema hobera edo okerrera doa?». Horrelako galderari erantzuna eman gura diete, eta horregaz batera, gazteen artean eztabaida sustatu. Sortzen diren ideia eta ekarpenak zabalduko ditu EGK-k, baita beste neska-mutilen artean ere, eta gizartean ere bai. Hori da eta helburuetako bat.

Sariak

Oraingoan ere parte-hartze handia espero dute antolatzaileek, sariak erakargarriak baitira: 1.000 eta 400 eurokoak, hezkuntzagaz zerikusia duten proiektuetarako. Ekainean epaimahai batek irabazleak zeintzuk diren erabakiko du eta sari-banaketa egingo da; Interneten bidez publikoaren saria erabakiko da eta botoa ematen duten guztien artean bidezko merkataritzan gastatzeko 50 euro zozketatuko dira. ◀

Info+: www.egk.org

Hezkuntza bide

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak RECacciona bideo-lehiaketaren hirugarren ekitaldia antolatu du; 16 eta 30 urte arteko neska-mutilentzat.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) bideo-lehiaketa martxan ipini du, *A ze para, hezkuntza eta gazteak!* goiburuagaz. RECacciona sariketaren hirugarren edizioak gazteek hezkuntzaren inguruan hausnartzea du helburu. Horretan 16 eta 30 urte bitarteko neska-mutilek parte hartu ahal izango dute,

gutxienez, bi pertsonaz osatutako taldeetan. Bideoak bidaltzeko epea maiatzaren 26an itxiko dute eta formatu denak onartuko dituzte: argazki-muntaketa, bideo-komikia, dokumentala, ikus-entzunezko poesia eta abar. Edozein gailugaz grabatuta egon daiteke, gainera. Aurkezten diren lanek lau minutuko iraupena izan dezakete gehie-



Bizkaiko Trikitixa Eguna Algortan, 2010ean. BIZKAIKO TRIKITIXA ELKARTEA

Getxoko jaialdian estreinatuko dute trikiti-kantarik onena

Bizkaiko Trikitixa Elkarteak maketa-lehiaketa antolatu du lehenengo biderrez. Parte-hartzaileek ekainaren 30era arte izango dute aukera euren piezak Bizkaiko Trikitixa Elkartera bidaltzeko. Hiru kanta bidali behar-ko dituzte formatu digitallean helbide elektronikoz. Izen-emate fitxa ere bidali beharra dago, eta, adinez txikikoek, guraso edo tutoreen baimena ere bai. Irabazlea irailaren

7an emango da ezagutzera. Hala, sari bakarra egongo da, puntu gehien lortu dituen talde edo bakarlariarentzat. Irabazleak Iurretako Txirula musikadendan gastatzeko 500 euroko bonua jasoko du eta azaroan Getxon egingo den Nazioarteko Trikitixa Jaialdian jotzeko aukera izango du.; gainera, egun horretan jarduteagatik 400 euroko diru-saria ere poltsikoratuko du. ◀

Info+: www.bizkaikotrikitixaelkartea.com

Euskaraz bizitzeko, Otxandiora joateko deia

Sei urteko bidearen ostean, Hizkuntza Eskubideen Eguna atzean utzi eta Euskaraz Bizi Eguna antolatzeari ekin zion Euskal Herrian Euskaraz (EHE) eragile euskaltzaleak. Seigarrena aurton egingo dute: apirilaren 18an Otxandion. Egitarau zabalak pres-tatu dute horretarako. Urteak aurrera egin ahala, «atxikimendu zabalak eta honen inguruan sortzen joan den mugimenduak bultzatuta, Euskaraz Bizi Eguna dimentsio zabalagoa hartzen hasi zen, Gernika-Lumon ospatutakoak frogatu zuen bezala».

Otxandio «euskararen arnagune txikia eta euskaldunon babesgune handia» dela dio EHEk. Euskaraz Bizi eguna aurkezteaz gainera, Urepeletik Bilbora doan Korrikan parte hartze deitu dute EHEko kideek: «Egiten badugu lor dezakegu. Ez badugu egiten... ez dugu lortuko. Euskararen eta euskaldunon alde mugimendua indartzea beharrezko ikusten dugu. Izan, egin eta eragin!». ◀

Egitaraua

09:00etatik aurrera

Mirugain mendi-taldeagaz mendi-irteera. Soinubil kantu-poteoa; eta txistulariak. Urdax Magunazelaia harri-jasotzailearen erakustaldia.

EuskalBorder ikuskizuna, antzarakaz. Haurrentzako puzgarriak eta jolasak (Kimuak).

14:30etik aurrera

Herri-bazkaria, ehunka lagunentzat. Gibelurdinak (bazkalostean).

18:30etik aurrera

Ekitaldia. Buklano FTren partida. Urduri dantza-taldea. Batukotx (batukada, kale-animazioa). Luhartz, Gozategi eta Governors taldeak. DJ Elepunto gaztetxean.



Ttipi-ttapa

IRATXE MARTA LINARES
AEK-ko irakaslea

Gu EUSKAHALDUNAK gara...

19 ditu Korrikak, 19 hasiera-amaiera, 19 omendu eta 19 mezu utzi dizkigu Korrikak urte luze hauetan. 19 lelo ere eman dizkigu, eta oraingoan «EUSKAHALDUN» izateko gonbitea egin digu. Eta, guk, esku zabalik, hitza hartu diogu. Euskahaldunak gara eta herri hau euskahalduntzen segituko dugu.

Uribe Kostan ere ahalmen horren erakuslehoa izan behar dugu bertako euskahaldunok. Gure herrietan euskara eta euskaraz ikasi ahal dugulako, euskara irakatsi ahal dugulako, hots, euskaraz bizi ahal garelako.

Baina euskarak babesa behar du, euskahaldun guztion babesa, hain zuzen ere. Herritarrona zein agintariena, denona. Guztiok euskahaldunak garelako, Korrika guztiona da. Guztiona, bai. Herrietako Korrika batzordekideena da, euren lanak engranajea posible egiten duelako. Batzordeek antolatutako ekitaldietan parte hartu dutenena ere bada, Korrika pasatzen denean bide bazterretan animatzen egoten direnena, esfortzu handiz metro batzuk egitera ausartzen direnena, kilometro luzeak korritzen dituztenena... Baina, neurri handiagotan Korrika gurea da, AEK-ko irakasleona. Gure ohiko jarduna gelditu barik Korrikak eskatzen dizkigun ardura eta betebeharreko guztiei erantzuten diegulako.

Eta Korrika zuona ere bada, Lourdes, Joseba eta Rikardo. 19. edizioan ere gurekin zaudete, zuek euskahaldunak zaretelako, eta euskahaldunon Korrika honetan, bakoitzak zuon herrian, kilometroa gurekin egin duzuelako.

Urepelen hasi, Bilbon amaitu, bitartean Uribe Kostan hartu dugu lekukoa, eta zuei guztioi esker euskahaldunetz bete ditugu gure bazterrak. Orain, Urepelen gertatu legez, Bilbokoak ere bete behar ditugu, domekan, Korrikari merezi duen agurra emango badiogu: ttipi-ttapa, ttipi-ttapa...



Joe Lovano saxo tenorea inprobisatzaile handia da. GETXO JAZZ

Izen handiko musikariak aurtengo Getxo Jazzen

Getxoko Nazioarteko Jazzaldian joko duten gonbidatu nagusi batzuk ezagutzera eman dituzte daborduko: Avishai Cohen, Joe Lovano eta Stanley Clark. Uztailaren 1etik 5era, beste kontzertu nagusi bi ere egongo dira.

Getxoko Kultur Etxeak daborduko ezagutzera eman ditu Getxoko 39. Nazioarteko Jazzaldian parte hartuko duten musikarietako batzuk. Hala, jaialdiaren lehenengo egunean, uztailaren 1ean, gaur egungo eszenako tronpetista nabarmenatarikoa den Avishai Cohen israeldarrak joko du. Hilaren 3an Joe Lovano esta-

tubatuarraren txanda izango da, orain dela hiru hamarkadatik hona saxo tenorearen erreferentzia bilakatu dena; eta hilaren 4an, Lovanoren herrikide Stanley Clark izango da protagonista, jazzaren eszenan baxu elektrikoa sartu duten aitzindarietako bat. Getxoko jazzaldiko saio nagusien eskaintza beste bi kontzertugaz osatuko da, eta,

gainera, talde lehiaketako eta Hirugarren Milurtekoa ataleko saioak zein *jam session* delakoak ere izango dira.

Talde lehiaketari dagokionez, aurtengo, guztira, 18 herrialdeetako 55 taldek parte hartu dute aurreneko fasean, eta, horien artean, aurtengorako ondorengo taldeak hautatu ditu epaimahaiak: EYM Trio (Frantzia), Federico Nathan Quinteto (Herbehera-Uruguai) eta Maciek Wojcieszuk Quintet eta Grzegorz Włodarczyk Qt. poloniarak. Aukeratuak bandek uztailaren 1etik 4ra jardungo dute lehiaketako lehenengo saria eskuratzeko lehian. ◀

Amaitzear, Pop-Rock lehiaketaren izen-ematea

Leoioako Pop-Rock lehiaketan parte hartu gura duten musika-taldeek martxoaren 31ra arteko epea edukiko dute, gutun-azal batean eta posta ziurtatu bidez, gutxienez bost abesti dituen CDa bidaltzeko Aterpe Leioa Gaztegunera. Horiek denek bi modalitateetako batean eman beharko dute izena: pop-rocka edo metala. CDagaz batera, parte-hartzaileek inskripzio-orria bete eta bidaliko dute, eskatutako datu denakaz, gutun-azalean ondokoa idatziz: «XV Pop Rock Lehiaketa. Aterpe Leioa Gaztegunera. Aldapabarrena, 2. 48940 Leioa. Bizkaia». Eta diskoan bertan taldearen

izenaz gainera, barruko kanten izenburuak ere idatzi beharra dago.

Maiatzaren 4rako, epaimahaiak kategoria bakoitzeko bandarik onenak aukeratu dituzte, San Juan jailetan zuzenean jotzeko. Metal saileko irabazleak 1.200 euro jasoko ditu, Pop Rock kategoriako bandarik onenaren kopuru bera. Lehiaketako talderik onenak, ostera, beste 400 euro jasoko ditu. Bitartean, Udalak 600 euro emango dizkie musikari leioaztar onenei, eta Euskara Zerbitzuak beste 600 euro gure hizkuntzan kantarik onena aurkezten dutenei. ◀

Info+: www.kulturleioa.com

Juan Carlos Cifuentes jazz adituaren heriotza tamaldu dute Getxoko Kultur Etxeko langileek

Cifu ezizenez ezaguna zen Juan Claudio Cifuentesen heriotza tamaldu dute Getxoko Kultur Etxeko langileek. Prentsa-ohar bidez adierazi dutenez: zendutako laguna jazz-musikaren zabaldearen erakusle handia izan zen, eta 1990etik aurrera Getxoko Jazzaldiko kolaboratzaile-lanetan jardun zuen. Zehaztu dutenez, 25 urte baino gehiagoz, Cifuentes talde-lehiaketako hautatze-batzordeko eta epaimahaiko kidea izan zen. Getxo Jazzegaz harreman estua zuen eta jaialdiaren «enbaxadore» jarduten zuen Euskal Herrikanpo ere bai. Ondas saria jaso zuen 2010ean. ◀



Elkartasunaren herri-lasterketa Sopelan

Stop Sanfilippo laguntzeko ehunka kirolarik parte hartuko dute domekan Sopelako XIII. Herri Lasterketan. Munarri atletismo-taldeak antolatzen du proba.

Elkartasunak eta kirolak elkarri eskua emango diote domekan Sopelan. Izan ere, ehunka korrikalarik haien zangoak baliatuko dituzte bertako XIII. Herri-Lasterketan, Stop Sanfilippo fundazioa laguntzeko. Munarri atletismo-taldeak antolatutako proban izena emateko bina euro ordainduko dituzte lasterkariek, senior eta beterano mailatakoek eta euro bana, bestelako kategoriatan.

Izen-emateak

Inskripzioa egin eta dortsala jasotzeko azken eguna eguna izango da. Horretarako, honako lekutara jo ahal izango da: Kurtzio kultur etxea (18:00etatik 20:00etara), Algortako Torre kaleko Kantxa Kirol Moda eta Bilboko Euskalduna kaleko Deportes Bikila dendak eta Munarri taldearen webgunea. Iaz bezala, batuko den diru dena Stop Sanfilippo fundazioaren

tzat izango da. Dirua irabazteko asmo bako erakunde horrek izen bera duen gaixotasun arraroa ikertu eta gaixoak artatzeko tratamenduak bultzatzen ditu. Gaur egun, nazioarteko hainbat elkartegaz eta AEBetako Ohioko (AEB)

Batuko den diru dena Stop Sanfilippo fundazioarentzat izango da

Nationwide umeentzako ospitaleagaz dabil lanean, farmako bat gizakiak probatzeko ahaleginetan. Sanfilippo sindromea nerbio-sistema zentralaren endekapenezko gaixotasuna da, heparan-N-sulfatasa entzimaren faltak eragindakoa. Horren eraginez, Sanfilippo



Parte-hartzaile asko izan ohi du herri-lasterketak. © MUNARRI ATLETISMO TALDEA

pairatzen duten umeek substantzia toxikoak metatzen dituzte burmuinean, berba egiteko eta ikasteko ahalmenak galduz. Era berean, neska-mutilek hainbat arazo fisiko izan ohi dituzte, eta orain arte gaztetan hil izan dira.

Lasterketa

Proba goizeko 10:30ean abiatuko da, Sopelako udaletxeko plazan. Ordu horretan, parte-hartzaile txikienek, 2007an eta handik aurrera jaiotako neska-mutilek, ekingo diote 400 metroko lasterketari. Handik aurrera, hamar minutuan behin irtengo dira hurrengo kategoriak: umetxoak (2005ean eta 2006an jaiotakoak), umeak (2003-2004) eta gaztetxoak (2001-2002), hurrenez hurren 800, 1.200 eta 1.500 metro egiteko. Goizeko 11:10ean, txanda helduko zaie 1998 eta 2000 artean sortutako kadetei eta gazteei. Horiek hiru kilometro egin beharko dituz-

te. Ordutik aurrera, 11:30ean, helduek egin beharko diote aurre 7.700 metroko ibilbideari. Maila guztietan, lehenengo hiru sailkatuek garaikur bana jasoko dute.

Kategoriaren batean jende gutxi izena emango balu, antolatzaileek aurreko mailakoak batuko lituzkete korrikalariak, Munarri atletismo-taldeak azaldu duenez. Halere, eguaztanean daborduko 600 parte-hartzailek baino gehiagok izena emanda zuten.

Kontuz orduagaz

Antolatzaileek aparteko ohar bi egin dituzte. Alde batetik, webgunearen bidez izena emandakoek dortsala udaletxean jaso ahal izango dute. Beste aldetik, ordu aldaketa dela-eta kontuz ibiltzeko gomendioa egin dute; lo egiteko ordu bat gutxiago izango da. ◀

Info+: Munarri.blogspot.com
Info+: Stopsanfilippo.org

Plentzia-Mungia ibilaldia izango da domekan

Domekan, Uribeko GR-280 ibilbideko Plentzia-Mungia etapa egingo dute. Goizeko 09:00etan irtengo da martxa, Plentziako metro-geltokitik. Halere, autoa amaieran zain izateko, bada aukera aurretik Mungia joan eta bertako udaletxean Plentziarako autobusa hartzeko. 15 kilometroko txangoan ikusgai izango dira Landetxo Goikoa euskal mitologiaren parkea, Butroe ibaia eta gaztelua, eta Kantauri itsasoa. Martxa Jata-Ondo landa garapenerako erakundeak antolatu du, Itxartu eta Urko mendi taldeen laguntzaz. Eguen eguerdia da izena emateko epemuga. ◀

Info+: itxartu.com

Leioako mendi taldeagaz Kantabriara

Los Campanarios Kantabriako gainera (1.323 metro) igoko dira domekan Leioako mendizaleek, bertako mendi taldeak antolatutako txangoan. Interesatuak izena eman dezakete elkartearen webgunean. Irteera 7:50ean izango da, Pinueta auzotik; bost minutu beranduago Lamiakotik igaroko da. Deustuan eta Bilbon ere autobusera igo ahal izango da. Kantabriako Collados del Ason parke naturaletik abiatuko dira mendizaleak, PR-S 66 ibilbidea jarraituz. Bide horrek 14 kilometro ditu eta 4 bat ordu behar dira egiteko, zailtasun txikiagaz. ◀

Info+: leioamenditaldea.com

hiruka

LAN-ESKAINTZA

ADMINISTRARI-KOMERTZIALA BEHAR DUGU

hirukan publizitateaz arduratuko den komertzial baten bila gabiltza

EZINBESTEKO BALDINTZAK:

- Lan komertzialean eskarmentua izatea.
- Uribe Kosta komertzialki ezagutzea.
- Euskalduna izatea eta gaztelaniaz ondo moldatzea.
- Komunikazio gaitasuna, ahozkoa zein idatzizkoa.
- Harreman etarako gaitasuna eta izaera dinamikoa.
- Autoa eta gidabaimena izatea.

KONTUAN HARTUKO DA:

- Tokiko hedabideetan eskarmentua.
- Uribe Kosta ondo ezagutzea.
- Lan-taldean jarduteko gaitasuna.

ESKAINTZEN DA:

Proiektu berri eta erakargarri honetan parte hartzea.

Curriculumak posta elektronikoz bidali beharra dago: hirukakoop@hiruka.eus

Berriz agindu diete konpontzeko



Martxoaren 6ko manifestazioan 700 bat auzokidek hartu zuten parte.

Lau urte luze pasa dira Plentzia Kirol Elkarteak 2010eko azarotik Udaleko Errotabarri futbol-zelaian arazo larriak zeudela ohartarazi zuenetik. 2013ko bukaerara arte Udalak ez zien erantzunik eman, Isa Mari Zarauza alkate independenteak zelaia konpontzeko 245.000 euro eta lau urteko plana agindu zituen. Arazoa eta arriskuak larriagotu zituzten zundaketek gain, ez zen beste obrarik egin. Azkenean, pasa den otsailaren 18an, Udal Gobernuak aitortu zuen ez zuela lanak egiteko asmorik. Makina bat protestaren ostean, eta elkarte historikoa desagertzeko arriskuan, pasa den barikuan Plentziako Udalbatzak konponketak egitea ados-

tu zuen. Ezohiko bilkuran, independenteek, EAJk eta EH Bilduk Errotabarriko obraz arduratuko den batzorde teknikoa eratzea erabaki zuten, aho batez. Udaleko proiektu zirriborroaren arabera, belar artifizialaren azpiko harrea kenduko lukete. Ostean, lur guztia material isolagarriz berdindu eta belar berria finkatzeko sarea ipiniko lukete. Arketak, sarbideak eta harmaila ere moldatzeko beharra legoke. Hala ere, teknikariek behin-betiko plana dute, Itsasertzeko Zuzendaritza Nagusiak baimendu beharko luke. Hala bada, Udalak izapideak egin eta bali-teke lanak «uda barruan» hastea. Halerere, 250.000 euroko inbertsioa nondik irtengo den ez da adostu. ◀

Leioako Arrantza Astea abiatu dute kastoreek

Leioako Kastoreak arrantza-eskolak Arrantzaren Astea antolatzeari ekin dio; daborduko 21. edizioa da. Eguaztenean hasi zituzten jarduerak, baina arrantzagaz lotura duten hainbat ekintzaz gozatu ahal izango da domekara arte.

Eguenean, Jesus Estrella Getxoko Litoral taldeko kide eta tuntux bidezko itsas arrantzan 2012ko Espainiako txapeldunak «Pesca en mar: cebos, formas de extraerlos» berbaldua eman go du, bidez lagunduta. Hitzaldia Sakoneta kiroldegiko ikus-entzunezko aretoan emango dute, 19:30ean. Barikuan, toki eta ordu berean, Jon Iñaki

Arrieta eta Roberto Extremiana arrantzaleek «Pesca en rio: pesca a duos, grandes truchas» izeneko berbetan jardungo dute, Argentinan eta Txilen izandako esperientziak azaltzeko. Haiek ere bideokonferentziaz egingo dute. Zapatuan, goizeko 11:00etan, arrantzarako euli eta aparejuak prestatzeko tailer praktikoa eskainiko dute Leioako Elexalde errotan. Arrantza Asteari behar bezalako amaiera emateko, domekan irteera antolatu dute txikienez Kanpetzuko (Araba) lakura. Autobusa Sakonetatik irtengo da 08:30ean. Aurretik Zazpi tabernan edo elkartearen izena eman beharra dago. ◀



Yolanda Azkue da Kastoreak arrantza-eskolako kide ezagunetarikoa bat. © SERGIO VIVANCOS



Ingeniariak-Deustu estropada hartuko du Ibaizabalek domekan, hilak 29; 35. urtea izango da. 13:00etatik aurrera, traineruek lau itsas milia egingo dituzte (7.408 metro), lehenengo milia osorik Erandioko uretan. Amaiera Bilboko udaletxearen parean izango da.

© MANU DE ALBA - PRIDE

Hamargarren Kosta Trail elkartasun-lasterketan izena emateko epea apirilaren 1ean zabalduko dute

Datorren ekainaren 14an izango da Kosta Trail lasterketaren hamargarren edizioa. Antolatzaileek aurreratu dutenez, «ezin dugu eguraldi ona bermatu, baina ziur esan dezakegu: 12 eta 20 kilometroko ibilaldiak eta 30 kilometroko lasterketa berrikuntzaz eta aldaketaz josita egongo dira». Bertan parte hartzeko, datorren apirilaren 1ean irekiko dute izena sarean emateko epea. Toki mugatuak izango direnez, azken egunera arte ez uzteko aholkatu dute.

Hamargarren edizio berezi honetan, lasterketarako Sopelako udal-txe plazako ohiko irteera mantenduko

dute, baina hasieratik Plentziarantz joko dute, gero korrikalariek BARRIKAKO baso eta zelai artean egingo dute aurrera. Ostera, Plentzia hiribildutik kostaldeko ibilbidera egingo dute, Sopela eta Azkorri atzean utzi, Mugarrikolanda mendira heldu eta Sopelaraino bueltatu arte.

Elkartasuna helburu

Jaio zenetik, Kosta Trailek asmo solidarioa izan du. Hamargarren edizioan ere bere izaerari eutsi eta lortuko duen diru dena ASVIDIA Bizkaiko Diabete Elkarteari emango dio. ◀

Info+: www.kostatrail.com/eu

Leioako waterpoloia, nagusi Perun

Askartza eta Leioa Waterpolo jokalariai kide dituen Euskal Herriko waterpolo selekzioak Lau Nazio Saria irabazi berri du Perun. Garaipena garrantzitsua da euskal waterpolorentzat, bigarren aldia baita selekzioak itsasoaren bestaldean jokatzen duena. Aurrena 2007an izan zen, Venezuelan.

Txapelketa martxoaren 13tik 15era jokatu zuten Liman; bertan parte hartu zuten Peru, Uruguai, Kolonbiako Antioquia departamenduko eta Euskal Herriko selekzioek. Euskal herritarrek kolonbiarrak 9-8 garaitu zituzten finalean, penaltitan. Joan Lluís Albellak zuzendutako taldea, baina, estropetzuka hasi zen ligaxkan, Antioquia-

ren aurrean 15-13 erori baitzen. Halere, Euskal Herriak erreakzionatu, eta beste arerio biak erraz gainditu zituen: 16-7, Peru; eta 14-4, Uruguai. Finalerdietan, Peruren kontrako norgehiagokan berriro irabazi zuten bertokoei, markagailua apur bat estuago gelditu zen: 13-8. Finalean, arauzko denbora amaituta, 5-5 berdindu zuten Antioquia eta Euskal Herriak, baina penaltietan erakutsitako trebetasunak kopa Euskal Herrira ekartzea ahalbidetu zuen.

Liman jokatu zuten Uribe Kostako taldeetako jokalariai honakoak dira: Xabier Gomez, Jorge Julian Juanes, Xabier Orozko, Eneko Orozko, David Estallo eta Unai Azkorra (Askartza) eta Diego Bartolome (Leioa). ◀



Euskal Herriak bost partidetatik lau irabazi zituen Liman. © EUSKADIKO IGERIKETA FEDERAZIOA



Pozik egoteko moduko egoeran daude Galeakoak. © GALEA KIROL ELKARTEA

Galdu barik 17 partida daroatza Galea Ak

Lurraldeko Ohorezko Mailara bueltatzea helburu, Galea A taldeak hamaika ahalegin eta bi egiten dabil hilotan Bizkaiko Lehen-tasuneko Mailan. Daborduko, Carlos San Joseren mutilek 17 partida jarraian daroatzate galdu barik, eta denboraldi hasiera kaxkarra gainditu ostean, bosgarren kokatu dira sailkapen-taulan, 44 puntugaz. Hamar garaipen eta zapi berdinketari esker, liga amaitzeko zortzi norgehiagoka falta direla, igoera hiru puntu eskasera dute getxoetarrek. Garaipena, berriz, puntu bat urrunago dago. Gainera, jasotako

baino 17 gol gehiago sartu dituzte Azkorrikoek; baita liderrak diren leketiarrek ere. Galeak hiru partida jokatu ditu astebeteko epean, eta emaitza bikainaz erantzun dio presioari. Martxoaren 15ean eta 22an ohiko 25. eta 26. jardunaldietako lehiak izan ziren. Hilaren 19an, ordea, Bizkaiko eta Euskadiko futbol-federazioek deitutako grebati atzeratutako partidari lehiatu ziren. Lehenengo norgehiagokan San Inazio 2-1 hartu zuten mendean Bolen. Pasa den egunean, berriz, 1-0 irabazi zion Uritarrari, eta azken deman, liderragaz berdindu zuten, 1-1. ◀

Landaburu igerilariak hiru domina lortu ditu

Estibaliz Landaburu Uribe Costa elkarteke igerilariak brontzezko hiru domina irabazi zituen Espainiako Igeriketa Txapelketetan, adimen-urritasuna duten kirolarien atalean. Probak Cadizko San Fernando herrian jokatu zituzten pasa den martxoaren 12tik 15era bitartean. Bertan, 50 eta 100 me-

tro libreko probetan eta bizkarreko 50 metroan podiumera igo zen getxoetarra. Era berean, 4. eta 5. sailkatu zen 200 eta 50 metroko libreko txapelketetan. Landaburuk iaz ere denboraldi bikaina egin zuen, eta, horri esker, Getxo Sasoi Sasoiari sarietako Marka Hautsiz kategoriako garaikurra jaso zuen 2014an.

Landaburugaz batera, Paul Diaz eta Inaxio Miguel uribekostarrak ere lehiatu ziren Espainiako txapelketetako hainbat modalitatetan. Diaz podiumetik gertu, laugarren, gelditu zen. ◀

Erandioko kirol laguntzetan, 130.000 euro

Erandioko Udaleko Kirol Sailak 130.000 euro bideratuko ditu udalerriko elkarten eta pertsonen kirol jarduerak babesteko, iazko diru-kopuru bera. Diru-laguntzen oinarriak eta baldintzak udal webgunean zein Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko martxoaren 11ko zenbakian argitaratu dira; martxoaren 26a da eskaera aurkezteko azken eguna. Horretarako, honako lekuetara jo ahal izango da: udaletxeko Erregistro Nagusia, Astrabuduko udal bulegoa; eta, gutun ziurtatu legez bidaliz gero, edozein posta bulegotatik. ◀

Info+: <http://erandio.net/eus/site>

Erandio-Erandio txirrindularitza martxa apirilean

Datorren apirilaren 18an izango da Erandioko Txirrindulari Elkarteak urtero antolatzen duen Erandio-Erandio txirrindularitza-martxa, «Bizirik errespetatu gaitzazu» goiburuagaz. Daborduko, izena eman daiteke: Laboral Kutxan dagokion diru-sarrerarekin. Apirilaren 12ra arte, federatuek 15 euro ordaindu beharko dute, eta federatuta ez daudenak, 25 euro. Hortik aurrera izena ematen dutenek bost euro gehiago eman beharko dituzte. Martxan Gernikaraino joan-etorria egingo dute, 93 kilometroko ibilbidea osatuz. ◀

Info+: <http://respetanosvivos.es>

Kantxa
kirol moda
URIBE KOSTAKO KIROL DENDA



Torre 4
ALGORTAKO AZOKA

TF. 94 491 18 82
info@kantxa.eu
www.kantxa.eu

Neguri, klasedun auzoa



IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Neguri: ¿Un barrio con clase o una clase con barrio? liburu interesgarria kaleratu zuen pasa den urtarrilean Jose Antonio Egido soziologo eta militante komunistak. Bertan, Getxon finkatutako euskal eta espainiar oligarkiaren erretratu marxista eskaintzen du.

Templando El Acero argitaletxe txikiak argitaratutako lanean azaldu du Jose Antonio Egidok 2005ean, 2009an eta 2012an unibertsitatean jorratu duen gai mamitsua. Liburuan planteatzen duen «Neguriko aristokrazia finantzarioaren azterketa soziologikoa» egiteko, Egidok Bizkaiko kapitalismoaren sorrerara eroaten du irakurlea. Izan ere, bere ustez, XIX. zein XXI. mendeetan, eta XX. mendearen 90eko hamarkadan, bizi izan ditu talde horrek bere garai loriatsuenak. Egileak horren adibidetzat jotzen du Emilio Ybarra Churrucak BBVA bankuaren presidentetza utzi behar izan zuenean *El Mundo* egunkari espainolak Ybarrari aitortutakoa: berari esker «Neguriko antzinako familien boterea inoiz ez» zela «hain handia izan». Halere, Madrilgo komunikabide eskuindarrak dioena zuzendu eta gogoratzen duenez, Primo de Riveraren zein Francoren diktaduretan «euren boterea handiagoa izan zen, erabatekoa izan zen».

ETaren eta Auzitegi Nazionalaren jomugan

Egidok arreta jartzen dio euskal jendarte talde txiki horren aberastasunaren jatorriari, prentsan duen eta izan duen «erabateko botereari», Estatu espainolagaz mantendutako loturei, eta, batez ere, «herri hau itzalpetik menperatzen duten banku eta enpresa handien zuzendaritzakaz dituen harreman estuei». Berarentzat harrigarria bada ere, egileak egiaztatzen du iritzi orokorra dela Neguriko taldea desagertuta da-goela. Horretarako bidea eman ei dute ekonomiaren

gorabeheretik, «terrorismoaren astinaldiak» eta Espainiako Auzitegi Nazionalak euren sendi nagusien «patriarka» prozesatzen saiatu izanak. Epaitegi horretako magistratuen saiakera antzuak, hala ere, frogatzen du klanaren zigorgabetasuna, Egidoren ustez. Gainera badio, zabaldutako iritziaren aurka, Neguriko familia-sareak ekonomia globalizatuan funtzio menperatzailea duela, ekonomian eta politikan osasuntsu dabilela, eta klase soziala dela argi daukan Euskal Herriko klase sozial bakarra dela. Hortaz, Egidoren ustez, Neguriko leinuek izandako bost belaunaldiek

Boluetako Santa Ana enpresako isurketek eragindako izurriteak Bilboko biztanleen herena hiltzea eragin zuen

sorreratik eta gaur egunera arte bultzatu dituzte identitate kolektiboa, proiektu historikoa, «aberastasuna eta boterea mantendu eta handitzearen» aldeko mobilizazioa, jabetza eta eragina, eta, azkenik, Estatu eta jendarte espainolaren gaineko kontrola.

Sobiet Batasunaren aurretik eta ondoren

Soziologoak ez du lupa «klase menperatzailearen» bakarrik jarri. Azaltzen duenez, neguritarrentzat «gozagarria» izan zen «Sobiet Batasunak gidatzen zuen eremu sozialista euro-asiarraren sun-



tsipena». Horren eraginez, soziologiako doktoreak uste du desagertu egin zela familia-sarearen izate beragaz bateraezina litzatekeen balizko antolakuntza sozial alternatiboaren aukera. Azterketa soziologikoa eta materialismo dialektikoa erabiltzen baditu ere, *Neguri: ¿Un barrio con clase o una clase con barrio?* ez da liburu zurruna. Erraz irakurtzen da, azalpen pedagogikoei eta askotariko aipu interesgarriei esker.

Sarraskiaren salaketa

Liburuak jasotzen duenez, aberasteko bidean, Neguriko hainbat familiak gorpuen arrastoa utzi zuten XIX. mende akabuan. Adibidez, Chavarrik eta Gandariasek Boluetan zuten Santa Ana enpresan minerala garbitzeko likidoak Ibaizabalera botatzen zituzten. Bilboko biztanleek edaten zuten ura bertatik zetorrenez, izurrite handiak eragin zituzten isurketek. Juan Pablo Fusi historiagilearen arabera, hildakoen kopurua biztanleriaren herena izan zen.

Neguriko sendiek parekorik gabeko mozkinak batu zituzten XIX. mende akabuan eta XX. mende hasieran, kasu batzuetan %1200ekoak izan ziren. Horretan lagundu zuten meategiek, siderurgiak eta ontziolen sortutako dirutzak, bertako langileei emandako bizi-baldintza penagarriei esker aurreztutakoak; eta banku eta merkataritzaren etekinek. Susperaldi horretan, eta, batez ere, Lehenengo Mundu Gerragaz batera eta *20ko urte zoroetan* izandako aberaste azkarrak modan jarri zituen inbertsio arranditsuak. Ordukoak dira Negurin eta Areetan eraikitako bizitegi-auzo berriak, Abrako Itsas Errege Kluba (1903), jauregietan hamaika zerbitzariz inguratutako ohiturak, eta jan-edanak edota apaingarriak leku fin edota exotikoetatik ekartzeko aztura. Aurretik, Bilbon ez bezala, Negurin aberatsek euren bizilekua modu kolektiboan eraiki zuten; horretarako 1904an, Sociedad de terrenos de Neguri enpresa eratu zuten.



Herri xehearengandik banatuta dago aberatsen auzoa.

Baina, Alfonso XII.a eta XIII.a erregeek Getxoko bainuetxeak sarri eta askotan bisitatu arte, ingurua ez zen famatu edo halako prestigioa hartu, eta horren ostean. 1917tik aurrera, hasi ziren familia burgesak bertan «lehorreratzen».

Guardia Zibilaren umezurtzak

Herri xehetik aldentuta, eta dirua soberan, Neguriko klase burgesak bere burua nobletzeari ekin zion. Hortik atera ziren Lamiakoko markesgoa bezalako tituluak. 1919an, Felix Abasolo y Zuazo enpresari, diputatu eta senatariak konde bihurtu ahal izateko, dohaintza *eskuzabala* egin zion Guardia Zibilaren umezurtzen ikastetxeari: garaiko 100.000 pezeta.

Halere, bazen beste bide bat nork bere burua goratzeko: Espainiako antzinako familia feudalak ezkontzea. Bide hori jarraitu zuen familia baten ondorengoa da, adibidez, Pedro Morenes y Alvarez de Eulate Espainiako Defentsa ministro getxoztarra.

Hildakoen botoa

Egidoren ustez, «Bizkaiko industriako burgesen eta merkatarien aberria euren negozioak dira»; Estatu espainiarrak negozio horiek zabaltzea eta azkar aberastea bermatzen die; etorkinen eskulan merkea errazten du eta kontrako jarreretatik babesten ditu neguritarrak. Hori dela eta, sutsuki defendatu ohi du estatus berezia ematen dion Espainiako monarkia. Bide batez, ahalegin horretan dirua irabazterik ere badu. Berbarako, 1898ko Kubako Gerran edo Marokoko hainbat borrokalditan, Neguri eta Bilboko aberatsek funtsak osatu zituzten gerra ahalegina sostengatzeko. Idazleak gogoratzen duenez, laguntza horiekaz, trukean kolonietako «lehengaiak merke-merke» eskuratzen jarraitzea babesten zuten.

Gerra Karlistak amaituta, eta liberalek mineralak esportatzeko zergak kenduta, industria-burges-

siak atzerriko produktuen inportazioa zailtzeko muga-zergak eskatu zizkion Estatuari. Protekzionistek Union Liberal alderdia sortu zuten 1897an. «Boto emaileak sobornatuz, hildakoen botoez, bortxaz eta egin daitezkeen amarru zikin guztiez, euren eskuekin kontrolatu zituzten Aldundiaren eta udalen botere osoa». Aginte eta nagusitasun horrek 1914ra arte iraun zuen, PSOE eta EAJren indarraldia hasi arte. Neguritarrak babes osoa eman zioten Primo de Riveraren diktadurari. Errepublikak heldu zenean, talde faxistak finantzatzen eta Sanjurjada bezalako kolpe militarrek babesten erantzun zuten. Rafael Sanchez Mazas idazle falangistaren esker ona jaso zuten.

Erregimeneko tontorrean, odolez

Mola eta Francoren matxinadari dirua eta babesa ematez gain, familia aberatsen hainbat gizon borrokatu eta hil ziren, balio eskuindarren alde. Horien

Guardia Zibilaren umezurtzen ikastetxeari 100.000 pezetako dohaintza *eskuzabala* kostatu zuen konde titulu bat lortzeak

artean dago Santiago Ybarra, BBVAko presidentea izandakoaren aita. Beste batzuk, Bilboko Larrinagako kartzelako eta Aingeru Zaindarien komentuko sarrasketan hil zituzten. Josemari Lorenzo Espinosa Deustuko Unibertsitateko irakasleak dioenez, «Ybarra, Lequerica, Oriol, Areilza, Careaga... erregimeneko estruktura politikoaren goi aldera heldu ziren, giza gorpuen eskailera odoltsua erabiliz. *Jaungoikoagatik eta Espainiagatik* eroritako haien senideak ere ez ziren falta». Eta goian darraite. ◀

Info+: LibrosML.blogspot.com

Neguriko sendi aberatsak

«NUKLEO GOGORRA»

Ampuero	Delclaux
Artiach	Lezama-Leguizamon
Aznar	Oriol
Barandiaran	Rotaeché
Basterra	Ybarra
Churruca	Zubiria

BESTE FAMILIA GARRANTZITSUAK

Abasolo	Gortazar
Acha	Guell
Aguirre	Guzman
Allende	Icaza
Alzola	Landeche
Amann	Lequerica
Arana	Lipperheide
Areilza	Mac Mahon
Aresti	Marco Gardoqui
Arteche	Martinez de las Rivas
Barrenechea	Muguruza
Basabe	Olabarri
Bergareche	Oraa
Berge	O'Shea
Basagoiti	Prado
Careaga	Real de Asua
Castellanos	Rica, de la
Chalbaud	Salazar
Echenique	Sendagorta
Echevarria	Smith
Eguidazu	Urrutia
Escauriaza	Vallejo
Escudero	Velasco
Eulate	Vilallonga
Galindez	Yohn
Gandarias	Zubiaga
Gondra	

Denborapasa

Horoskopoa



Ura (Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Korrika igaro denetik hainbat egun pasa dira eta gorpuzta mingor duzu oraindino. Bada, kirol eta euskara gehiago egiten hasi beharko duzu...



Otsoa (Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Eros ezazu erakuslehoan hainbeste biderrez ikusi duzun beroki hori. Bestela, azkenean, begiakaz ere jango duzu.



Adarra (Otsailak 19-Martxoak 20)

Aste Santuko oporrak ate joka daude, baita udako azterketak ere. Ze demonio! Liburuak alde batera utzi eta hartu egun pare bat deskonektatzeko!



Aitzurra (Martxoak 21-Apirilak 19)

Zergatik ez duzu orain itsasoan bainu bat hartzen? Kanpoan baino temperatura epelagoa egiten du, nahiz eta udaberrian sartuta gauden.



Hostoa (Apirilak 20-Maiatzak 19)

Adi! Zapatuan ordua aldatu beharra dago, eta amak badaki; beraz, ez erabili aitzakia hori parrandan behar baino denbora gehiago emateko.



Eguzkia (Maiatzak 20-Ekainak 18)

Ikasi, ikasi eta ikasi. Altxa begiak liburuetatik eta irten kalera arnasa hartzera. Ondoren, bueltatu eta jarraitu ikasten, ikasten eta ikasten.



Garia (Ekainak 19-Uztailak 18)

Zauden bezala oso ondo zaudela diozu? Oso gogoko duzun baten bat agertzen denean, ea horrela pentsatzen jarraitzen duzun.



Lastoa (Uztailak 19-Abuztuak 17)

Zapatuan ordubete gutxiago izango duzu lo egiteko. Lasai! Sei hilabete barru ordubete gehiago izango duzu eta!



Iratzea (Abuztuak 18-Irailak 16)

Etxebizitza egoki baten bila zabilta. Adi! Aurrenekoa ikusita gustukoa izanda ere, jarraitu bilatzen, beti hobek aurki daitezke eta!



Meta (Irailak 17-Urriak 16)

Datorren astean loteria irabazi eta milioika eta milioika euro jasoko dituzu. Pena, ametsa baino ez izatea... Baina ona da amets egitea...



Hazia (Urriak 17-Azaroak 15)


Soinean éroan argazki-kamera uneoro, inoiz ez dakizu noiz gerta daitekeen argazki perfektua ateratzeko momentua.



Negua (Azaroak 16-Abenduak 20)

Udako oporrei begira zaude. Bada, aukeratu ahalik eta azkarren opor-egunak, lankideek zure egunak aukeratu gura dituzte-eta!

Soluzioa



Zazpi ezberdintasunak



Torre 2
48990 ALGORTA
94 491 12 71
iratialgorta@gmail.com

irati

OPARIAK MODA GAZTEA

berezi

Hamburguesas Bocatas
Hanburgesak Ogitartekoak
Sandwiches Platos combinados
Sanwichak Plater konbinatuak

SABINO ARANA, 34 48640 - BERANGO
PEDIDOS: 946 661 064 (PARA RECOGER EN LOCAL)

ABIAN

PINTXOAK
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN:
RAZIOAK-BOKATAK-PLATER KONBINATUAK
AFARIAK ETA URTEBETETZEAK
ENKARGUZ
Tf. 94 656 68 51 Bidebarri 2, ALGORTA

txakoli
mota
gane
txakolina

Seis-Urte enpledea 34 (Akatanda Parke) Gohiari-Erandia
Tf. 94 467 00 07 www.txakolimagana.com

saiazgetaria
HOTELA

Roke Deuna 25
Getaria
T. 943.140.143
www.saiaszgetaria.com





10. zenbakia
2015eko martxoaren 26tik
apirilaren 1era arte



hiruka

HIRUKA Koop. elk.
Helbidea: Martikoena 16, 2. 48991 GETXO
e-Posta: hiruka@hiruka.eus
Posta Kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Erredakzio-burua: Irantzu Sagarmínaga
Erredakzioa: Iker Rincon, Kepa Ugarte, Julen Nafarrate, Iñigo Fernandez de Martikorena

Argazkiak: Hodei Torres
Diseinua: Jorje Perez eta Eñaut Etxebarri
Publizitatea: Erika Martinez
Kudeaketa: Ziortza Merino
Filmazioa eta Inprimategia: BEPSA
Lege Gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
CC-BY-SA



Erakunde laguntzaileak:



Baina atzerrian ere egin ditu Korrikak kilometroak, azken irudiok kanpoan dauden hainbat uribekostarrek helarazi dizkigute, hurrenez hurren: Hegoafrika (2), Estokolmo (Suedia), Berlin (Alemania) eta Bartzelonatik (Katalunia).
Hauek denak lagin eder bat baino ez dira, 19. Korrika Uribe Kostatik pasatu zeneko argazki guztiak ikusteko:
www.hiruka.eus

